

# B euskararen BERRIPAPERA

## Hitza eta gorputza, ipuin kontalaritza

**A**itzindaria Koldo Ameztoida eta erreferentzia puntu nagusia Hazparden urtero egiten den jaialdia. Ipuin kontalaritza, bada, indartzen eta zabaltzen ari da. Horren frogagarritzat jo daiteke, esate baterako, Ameztoida *Apanize* emanaldiko testua liburu batean argitaratu izana (*Oeil Sauvage, Baiona, 1995*). Koldo Ameztoida gain, Pello Añorgak eta Joxemari Carrerekin ere

ausart jokatu dute. Garbi dute denek ipuin kontalaritza ez dela soil-soilik haurren aurrean lantzekoa, nahiz eta, jakina, haurrak izan genero honekin gehien gozaten dutenak. Horren jakitun dira, halaber, Virginia Imaz, Agurtzane Intxaurrea, Arrate Leunda, Antton Irusta, Yolanda Arrieta eta beste hainbat. Zeregin berean ari dira horriek guztiak, hots, euskal kontalaritzaren loratze berria sustatzen.

Indartu eta zabaltzeaz gain, berrikuntza bideak bilatzen ere ari da generoa, musikari zein marrazkilariekin elkarlanean: Pascal Gaignerekin aritu izan da Koldo Ameztoida, Mikel Markez eta Alaitz Telletxearekin Joxemari Carrere, Jokin Mitxelena-rekin Pello Añorga... eta berriki jakin dugunez, *Kukubiltxo* taldeak Azkuek jasotako ipuinak oholta gainera eraman ditu.

Antzerkigintzari oro har, eta aktoreei bereziki, bide berriak urratzeko aukera ematen ari zaie ipuin kontalaritza, sinpletasunari esker batez ere. Sinpletasuna baitu, dudarik gabe, dohain aberatsenetako bat ipuin kontalaritzak. Muntaia handirik gabe, gastu handirik gabe, ipuin kontalariak ia-ia edozein tokitan egin dezake bere emanaldia: antzoki bateko oholta dotore eta modernoan zein auzoko taberna edo kafetegian, liburutegi edo eskola batek aterbeturik zein kale gorrian. Tokian tokiko

✕ *Argazkiko Koldo Ameztoida jo ohi da euskal kontalarien aitzindaritzat. Zorionez, beste kontalari asko abiatu da bide beretik, hitzaren eta gorputzaren indarrez.*



### SUMARIOA

- 1 **Hitza eta gorputza, ipuin kontalaritza**
- 2 **Laburrak**  
**Jon Landaburu**  
**Kontuan hartzeko**
- 3 **Bostak Bat taldearen azken fruitua**  
**Egonaldiak familia euskaldunetan**  
**Deialdiak**
- 4 **Izen-abizenez**  
**Lehen begiratuan**  
**Iritzia**

eta unean uneko gai eta egoretara egokitzeak aukera du gainera, bertsolaritzak izan ohi duen bezalaxe.

Eta bide horretatik, gero eta gehiago dira ipuinaren ordua izenburuz antolatzen diren jaialdiak. Finkotasunaz antolatzearen eskutik, jakina, entzuleengan ohitura sortzea etorri da, eta horrek guztiak kontalaritzaren alde jokatzen du ezberrik gabe.

Puri-purian dago, bizi-bizirik, eta aintzakotzat hartu beharreko generoa da ipuin kontalaritza. Komunikatzeko erarik sofistikatuenetara ohitu ahala, gero eta atsegingarriagoa izango baitzaigu ipuintxo bat kontadiezaguten, hitzaren eta gorputzaren indar soil eta miragarritzaren.

## LABURRAK

**E**lhuyar Kultur Elkarteak apirilaren 19an aurkeztu zuen Euskara-gaztelania / Castellano-vasco **Elhuyar Hiztegia**. Gaur egungo eta etorkizuneko erabiltzaileen beharrak asetzeari begira antolatu da hiztegia, eta, beraz, azken urteotan egindako ekarpenak zein euskal tradizioa hartu diranaren oinarri eta abiapuntutzat. Lan taldea 20 lagunek osatu dute; Xabier Kintana, Miren Azkarate eta Xabier Mendiguren Bereziartu euskaltzainak arduratu dira hiztegiaren zuzentasunaz. Hiztegiaren ezaugarri dagokienez, 83.000 sarrera, 120.000 adiera, 16.000 azpisarrera, esapide eta egitura gramatikalak eta 120.000 adibide inguru biltzen ditu.



**G**izartean duten eragina gero eta handiagoa delako, komunikabideek zeresan handia dute euskararen normalkuntzan. Horretaz oharturik, Andoaingo Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak babestuta, VIII. **Rikardo Arregi Kazetaritza Saria** deitu du. Zortzi urte iragan dira, beraz, lehen aldiz antolatu zenetik: **Rikardo Arregi Saria** ezinbesteko erreferentzia bihurtu da euskal komunikabideen artean. Aurtengo deialdiaren berrikuntzarik aipagarriena lanak arloz arlo banatu izana da; izan ere, ondoko bost esparrutako idazlanak aurkeztu ahal izango dira: *komunikabideen berrikuntza, saiakera laburra, baloraziozko kazetaritza, erreportajea eta irratia eta telebistarako gidogintza*. Eguneratze honekin, euskaraz ekoiztutako kazetaritzaren kalitatea bultzatu nahi da, eta, hari beretik, berrikuntzarako tresna izan. 1995eko maiatzaren 15etik 1996ko maiatzaren 16ra bitartean argitaratutako lanek dute sari honetan parte hartzeko aukera eta maiatzaren 26a baino lehen aurkeztu beharko dira Andoaingo Udaleko Euskara Zerbitzuan. Sarien banaketa, bestalde, uztailean izango da.

## Jon Landaburu

**D**iasporako euskalduna dugu. Jon Landaburu Parisen sortu zen, familia euskaldun batean. Gerra Zibilaren garaian utzi zuten Euskal Herria, baina amarengandik jasotako euskarari eustea lortu zuten. Filosofiako eta Linguistikako ikasketak burutu ostean, Kolonbiara joateko aukera izan zuen. Hango hiztun komunitateen aniztasunak liluraturik, han gelditzea erabaki zuen. Orduztik 28 urte iragan dira.

Gaur egun Bogotako Andeetako Unibertsitatean dihardu eta, aldi berean, Frantziako Ikerketa Zientifikoaren Zentru Nazionalen Ikerketa zuzendaria da.

Kolonbian, Landaburuk bi lan ditu nagusiki: alde batetik bertako hizkuntzen

azterketa (*corpus* alorrean batez ere), eta, bestetik, bertako komunitateetako buruzagien heziketaz arduratzen da. Ikasleen artean, besteak beste, gurasoen elkarrekin ordezka-riak eta sindikatu etako buruzagiak ditu. Bertako jendearen heziketaren bidez herriak hobera egingo duelakoan, lan egiten du euskaldun honek.

Kolonbian une honetan 66 hizkuntza dago, baina horietatik 32k 1000 hiztun baino gutxiago dute. Nolanahi ere, aniztasunaren aldeko joera sumatzen

du Landaburuk. 1991n Kolonbiako Konstituzioa aldatu zenetik, hizkuntza horien iraupenaz baikorra goa da.

Euskal Herrian izan zen duela gutxi Landaburu, UNESCOk antolatutako hizkuntza gutxiengotuei buruzko Mintegian parte hartzen. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetzaren eta Kolonbiaren arteko lankidetzaren bidez euskaldun honengan du euskarrik sendoenetako bat.



## KONTUAN HARTZEKO

## Euskara guztiZona Amurrion

Aresketa Ikastolaren eskutik, ekainaren 16an egingo da Amurrion *Araba Euskaraz*, Arabako ikastolen aldeko jaia. Aurtengo ekitaldia iragarriko duen leloa *Euskara guztiZona* hitz-jokoa da. Antolatzaileen asmo nagusia egunpasa bikaina egiten lagunduko duten era guztietako ekitaldiak eskaintzea da. Beraz, ahalegin horretan ari dira amurriotarrak urteko egunik garrantzitsuenari begira. Izan dezala ordainik, zeregin horretan ari direnen nekeak!

## Euskararen Astea, aurrerapen gisa

Eta giroa berotzeari begira, maitzaren 13tik 19ra bitartean, *Euskararen Astea* ospatuko da Amurrion. Udaleko Euskara Zerbitzuak hartu du bere gain ekitaldien prestakuntza, herriko talde askoren laguntzaz. Euskal kulturari eta euskarari loturiko ekitaldiak atondu dira egun horietarako, eta, besteak beste, bertso saioak, musika jaialdiak, hitzaldiak edota liburu azoka egingo dira astean zehar.

★ **Ahoz aho, belaunez belaur ... hil honetan non?**

**Maiatzaren 6tik 19ra bitartean, Mungian**

**Maiatzaren 20tik ekainaren 9ra bitartean, Arrasaten**



## 3000 HIZTEGIA: *BOSTAK BAT* TALDEAREN AZKEN FRUITUA


**B**ostak Bat taldeak euskara-gaztelania /gaztelania-euskara **3000 Hiztegia** kaleratu zuen martxoan. Adorez sailaren barruan argitara eman da eta hiztegi didaktikoa izatea du helburu. Lanaren abiapuntua hiztegi modernoa, aberatsa eta erabilgarria egitea zen eta euskara lan hizkuntza duten guztien beharrak asetzea. Horrela, beharrezkoak eta oso erabiliak diren arlo desberdinetako hitzak jaso ditu hiztegiak. Hitzen arteko erlazioa adierazteko leku berezia eman zaie adibideei, esaldi eginei nahiz esapideei.

Euskara sakontzen ari direnentzat bereziki erabilgarria gertatuko da hiztegia, hala nola, ikasle-irakasleentzat eta itzul-tzaileentzat, gaztelaniazko baliokide egokiak aurkituko baitituzte.

G. Aurrekoetxeak, R. Badiolak, L. Baraiazarrak, J.L. Goikoetxeak, T. Solabarrietak eta P. Uribarrenek hain zuzen, bi urte eta erdi eman

dituzte hiztegi berria osatzeko. Sei lagunokin batera, laguntzaile talde bat gogotik aritu da lanean.

Ezaugarri teknikoek dagokienez, 45.000 sarreratik gora ditu, eta 60.000 adiera inguru; halaber, kuadro didaktikoak eta hizkuntzako zenbait jakingarri bildu dira: aditza, deklinabideak, atzizki-aurrizkiak, puntuazio zeinuak, zenbakien idazkera eta abar.



## DEIALDIAK

### ✓ Kirol materialak euskaraz sortzeko bekak

Deba Garaiko Euskara eta Kirol Zerbitzuek, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak eta SHEE-IVEFek antolatuz, kirol materialak euskaraz sortzeko bekatarako deialdia egin da.

Bi arlotarako emango dira bekak: zientzia biologikoen eremuko idatzizko materiala sortzeko (400.000 pezetan) eta atletismo eta futbolari buruzko fitxa didaktikoak egiteko (250.000 pezetako bi beka).

Informazio gehiagorako: Bergarako Udaleko Kirol Zerbitzua.

### ✓ Europako dirulaguntzak

Eremu urriko hizkuntzak sustatu eta babesteko Europako Batzordeari eskabideak aurkezteko aurtengo bigarren epea ekainaren 15ean amaitzen da. Gogoratu proiektuak Hizkuntza Politikarako Sailordetzaren bitartez aurkezteko aukera dagoela.

Informazio gahiago jasotzeko eranduke honetara deitu: 945 18 80 90.


## Egonaldiak familia euskaldunetan

**D**agoeneko martxan da Eusko Jaurlaritzako Kultura

Sailak HABEren bidez antolatzen duen *Egonaldiak familia euskaldunetan* izeneko programa.

Martxoaren 27an egin zen ikasleak etxean hartu nahi dituzten familiak topatzeko deialdia; plangintzan parte hartu nahi duten ikasleek berriz, maiatzaren 7tik ekainaren 7ra arte aurkeztu ahal izango dute eskabidea. Aurreko urteetan bezala, herritarren %70 euskaldunak diren inguruetan

euskaraz bizitzeko, eta ikasurtean zehar ikasitakoa hobetzeko aukera eskainiko zaie euskara ikasten ari direnei. Euskal Autonomi Elkartearen, Nafarroako Foru Komunitatearen edo Ipar Euskal Herriaren eroldaturik dauden 18tik 35 urtera bitarteko ikasleek har dezakete parte egitasmo honetan. Horrez gain, HABEren 8. urratsa edo horren baliokidea den euskara maila gaindituta eduki beharko dute.



Programa honen helburuak hiru puntutan labur daitezke:

- ✓ Euskara bizi-bizia bertatik bertara ezagutzea.
- ✓ Euskal kulturarekin zuzeneko harremana izatea.
- ✓ Euskarazko eskoletan ikasitakoa praktikara eramatea.

★ **797 FAMILIAK ETA 1.831 IKASLEK HARTU DUTE PARTE JADANIK.**



**Jose Felix Azurmendi**  
**Radio Euskadi-ko zuzendari berria**


Jose Felix Azurmendi da *Radio Euskadiko* zuzendari berria apirilaz geroztik. Esperientzia handiko kazetaria da Azurmendi eta, prentsa idatzian egindako lanagatik ezaguna bada ere, telebistan eta irratan ere badu eskarmenturik. Ikasketak Caracasen eta Bartzelonan burutu zituen. *Egin* egunkariko zuzendaria

izan zen eta 1987az geroztik *Deian* aritu da erredakzio-buru eta zuzendariorde lanpostuetan. EHU eta Caracaseko Unibertsitatean ere aritu da lanean, Komunikazioaren Teknika eta Teoria irakasten. Horrez gain, Euskal Herriko eta atzerriko hainbat komunikabidetako kolaboratzailea ere izan da.

**Txomin Peillen**  
**UNEDen saria, saiakera arloan**

Txomin Peillen euskal idazle zuberotarrak eskuratu du UNEDek, Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalak, saiakera arloan antolatzen duen lehiaketako euskarazko saria. Euskarak Gaskoniako okzitaniarari egindako maileguak aztertzen dituen *Les emprunts de la langue basque à l'occitan de Gascogne* izeneko lanarekin, hain zuzen, eskuratu du Peillenek

lehen saria. 1932an sortu zen Parisen; biologia ikasketak egin zituen eta lizentziatu ostean, irakasle egin zuen lan. Bereziki aipagarria da zenbait euskal aldizkariren alde egindako lana; besteak beste, *Igela* aldizkaria sortu eta bertako zuzendaria izan zen. Ipuinak, narrazioak, saiakerak eta elaberriak idatzi ditu eta 1988az geroztik, euskaltzain osoa da.



**IRITZIA**

**Euskararen jarraipena, belaunez belautan.**

Mendeetan zehar, euskara ahoz aho heldu zaigu, belaunez belautan. Familia eta auzoa izan dira, hortaz, euskararen jarraipenaren oinarriak. Baina, azken hamarkadetan euskarak lortu dituen hitzun berriak eskolari zor zaizkio, batez ere. Beraz, familia eta eskola, biak, ezinbestekoak ditugu gaur euskararen bizirapena eta normalizazioa bermatzeko. Bestalde, euskararen erabilera normaltzeko urrats handiak eman dira. Hortxe ditugu, esate baterako, euskarazko prentsa idatzian, literaturan, irratan, telebistan eta teknologia berrietan eginko aurrerapenak. Alabaina, gurasoek seme-alabei euskaraz hitz egitea da haur eta gazteek euskaraz hitz egiteko bide egoki, seguru eta merkeena, gurasoen egitekoa ezin baita ordezkatu —ezta hizkuntza kontuetan ere—. Horixe da, hain zuzen, *Ahoz aho, belautan* kanpainak erakutsi nahi duena: eskolak, familiak eta gizarteak urrats bateratuak eman behar dituztela gizartearen arlo eta maila guztietan, euskara jakin eta erabiltzeko.

**Josune Ariztondo Akarregi**  
Hizkuntza Politikarako sailburuordea

**Lehen begiratuan**

**E**uskararen Akademiak 29 euskaltzain urgazle berri ditu martxoaren 29az geroztik. Iruñean egindako hileroko batzarrean, zeregin horretarako proposaturik zeuden hautagai guztiak onartu zituen Euskaltzaindiak. Urgazle berrien artean atzeritarrak ere badude, ondoko argazkian ageri den Suzuko Taura japoniarra eta bi georgiar, Natela Suturua eta Salome Gabunia. Zorionak guztiei!



**Euskararen Berripapera** zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

**Hizkuntza Politikarako Sailordetza**  
Wellingtongo Dukea, 2  
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Euskaraz  Gaztelaniaz

Izen-deiturak: .....  
.....  
.....  
Helbidea: .....  
.....  
Herria: .....  
Kodea: .....  
Lurraldea: .....  
Tel.: .....